

2022-6-28

**PRENTSA-OHARRA**

## **HEZKUNTZA SAILBURUARI GARDENTASUNA ETA NEGOZIAZIOA ESKATZEN DIOGU SARE PUBLIKOKO ESKOLA-KOMUNITATEEN ORDEZKARIEKIN**

Datozen urteetarako ikastetxe pribatuetan hezkuntza-itunak berritzea eta sinatzea arautzen duen agindua argitaratu ondoren, Hezkuntza Sailak egindako ofiziozko plangintzaren berri izan gabe, EHIGEk adierazi nahi du oso kezkatuta dagoela agindu horretan jasotako edukiarekin eta helburuekin.

- Ez da argitaratu Hezkuntza-administrazioak ofizioz egindako plangintza, eta ikastetxe pribatuen eta horien patronalen esku baino ez dago. Gogoratu behar da ikastetxe pribatu-itunduen plangintza planifikazio orokorraren zati bat dela, eta ikastetxe publikoen hezkuntza-eskaintza modu erabakigarrian baldintzatzen duela. Beste behin ere errefusatu egiten dugu patronal pribatuekin negoziatzeko praktika, sare publikoaren ezkutuan. Hezkuntzako kontseilariari gardentasuna eta sare publikoko eskola-komunitateen ordezkariekin negoziatzea eskatzen diogu.
- Hezkuntza-itunak berritzeko eta izenpetzeko agindua sei urterako planteatu da, aipatu gabe plangintza hori bi hirurtekotan banatuko denik, Hezkuntza Akordioan jaso den bezala. Gogoratu behar da aurreko sei urtekoaren plangintza ikastetxe pribatu eta itunduen aldeko gaineskantzak eta jaiotza-tasaren beherakadak eragindako doikuntzarik ezak markatu dutela. Plangintza berriak egoera hori birbideratzen ez badu eta eskaintza pribatuaren ezarpen handiagoa sustatzen badu, Hezkuntza Saileko hezkuntza-politikaren norabideak ez du sinesgarritasunik izango.
- Ikastetxe pribatu-itunduetan 2 urteko ikasgelak ituntzea jaso da aginduan. Ikasgela horiek ituntzea ez dago legean jasota, eta ez da Hezkuntza Akordioaren eztabaidaren parte izan; beraz, bereziki larria da Hezkuntza Sailak, agindu baten bidez, garrantzi handiko aldaketa bat sartzea inolako adostasunik gabe. Bildarratz sailburuari galdu beharko litzaike ea zertarako behar duen akordio bat, baldin eta gero alde bakarreko aldaketak sartzen baditu, inor kontuan hartu gabe.
- Jaiotza-tasaren jaitsierak ikaspostuen eskaintza berrantolatzea eta doitza eskatzen du. Zalantzak gabe ikaspostu gutxiago beharko dira. Agindu honek planteatzen duena da itundutako sarearen gutxieneko ratioa jaistea ikasgela osatzeko (horrek ez du inolako justifikazio pedagogikorik), ituntze-maila pribatu bera edo antzekoa izaten jarraitzea. Ez da onargarria gastu publiko berari eustea itunak egiteko, ikasle gutxiago dagoenean eskolatzeko. Neurri hori ez da inola ere justifikatzen, asmoa ez baldin bada behintzat itunpeko ikastetxeak faboratzea egun duten ituntze maila mantenduz. Ikastetxe pribatuen ezkutuko erreskate ekonomikoa eta interes publikoentzako kaltegarria den neurria litzateke hau. Ikaspostu gutxiago behar badira, ikaspostu gutxiago planifikatu behar dira, egungo gutxieneko ratioei eutsiz.
- EHIGEk agindu horren norainokoaren eta ondorioen balorazio zehatza egingo du, itunpeko ikastetxeek datozen urteetarako izango duten plangintzaren berri izan ondoren.

2022-6-28

**NOTA DE PRENSA**

**EXIGIMOS AL CONSEJERO DE EDUCACIÓN TRASPARENCIA Y NEGOCIACIÓN CON LOS REPRESENTANTES DE LAS COMUNIDADES ESCOLARES DE LA RED PÚBLICA**

Tras la publicación de la orden que regula la renovación y suscripción de los conciertos educativos en los centros privados para los próximos años EHIGE, a falta de conocer en detalle la planificación de oficio realizada por el Departamento de Educación, manifiesta su máxima preocupación por el contenido y los objetivos recogidos en la citada orden.

- No se publica la planificación de oficio realizada por la Administración educativa, que solamente está a disposición de los centros privados y sus respectivas patronales. La planificación de los centros privados-concertados es una parte de la planificación general que condicionan de manera determinante la oferta educativa de los centros escolares públicos. Rechazamos una vez más esta práctica de negociación y mercadeo con las patronales privadas a espaldas de la red pública. Exigimos al consejero de Educación transparencia y negociación con los representantes de las comunidades escolares de la red pública.
- La orden de renovación y suscripción de nuevos conciertos educativos se plantea para un periodo de seis años, sin que en ningún momento se mencione que dicha planificación se dividirá en dos trienios, tal y como se ha recogido en el pacto educativo. Debemos recordar que la planificación del anterior sexenio ha estado marcada por la sobreoferta a favor de los centros privado-concertados y la ausencia de ajustes derivados del desplome de la natalidad. Si la nueva planificación no reconduce esta situación y promueve una mayor implantación de la oferta privada, la dirección de la política educativa del Departamento de Educación carecerá de credibilidad.
- Se incluye la concertación de aulas de la etapa infantil de 2 años en los centros privado-concertados. La concertación de estas aulas no está contemplada en la ley y tampoco ha formado parte del debate del pacto educativo, por lo que resulta especialmente grave que el Departamento de Educación introduzca a través de una orden, una modificación de gran calado sin consenso alguno. En este punto cabría preguntar al consejero Bildarratz para qué necesita un pacto educativo si luego introduce modificaciones de manera unilateral, sin contar con nadie.
- La bajada de la natalidad exige una reordenación y ajuste de la oferta de puestos escolares. Es incuestionable que se necesitan menos plazas. Lo que esta orden plantea es bajar la ratio mínima de la red concertada para conformar aula, (lo cual no tiene ninguna justificación pedagógica) con el fin de seguir manteniendo el mismo o similar nivel de concertación privada. No es aceptable que se mantenga el mismo gasto público para la concertación cuando se van a escolarizar menos alumnas y alumnos. Esta medida no se justifica de ninguna manera, excepto que lo que se pretenda sea favorecer a los centros privado-concertados manteniendo su implantación con el mismo o similar número de aulas concertadas; es decir un rescate económico encubierto de los centros privados y una medida lesiva para los intereses públicos. Si se necesitan menos puestos escolares se deben de planificar menos puestos escolares manteniendo las actuales ratios mínimas.
- EHIGE realizará una valoración pormenorizada del alcance y las consecuencias de esta orden tras conocer la planificación de los centros concertados para los próximos años.